


Industri prezioak %1,1 gehitu ziren 2019ko urrian Euskal AEn aurreko hilaren aldean

Aurreko urtearen aldean (2019ko urria 2018koaren aldean) %2,0 gehitu ziren

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %1,1 gehitu dira 2019ko urrian aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan, urriko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industri prezioek izandako aldakuntza) %2,0koa da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Analisi zehatzagoa eginda, hauek dira 2019ko urrian prezio-hazkunderik handienak izan dituzten adarrak aurreko hilaren aldean: *Energia elektrikoa, gasa, lurrina eta aire girotua*, %7,3ko igoerarekin; *Ura*, %1,0koarekin; eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak*, %0,6ko igoerarekin. Aitzitik, prezioen beherakadarik handienak, hemen: *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza*, %2,1eko jaitsierarekin; *Erauzketa-industriak*, %1,2koarekin; eta *Kokeriak eta petrolio finntzea*, %0,3koarekin.

Helburu ekonomikoaren arabera ondasunen sailkapenari jarraituz, aurreko hilabetearekin alderatuta, *Energia* %4,0 igo da, eta *Bitarteko ondasunen* prezioak %0,2 igo dira; *Ekipo-ondasunen* prezioak, berriz, %0,2 jaitsi dira. *Kontsumo-ondasunak*, oro har, egonkor mantendu dira (%0,0ko aldakuntza); izan ere, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak %0,1 jaitsi dira, eta *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak ez dira aldatu (%0,0).

Urte arteko datuei dagokienez (2019ko urria 2018koaren aldean), prezioen hazkunderik handienak honako adar hauetan izan dira: *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua* (%22,5), *Erauzketa-industriak* (%3,0) eta *Material eta ekipo elektrikoa* (%2,5). Alderantzizko norabidean, prezioetan jaitsierarik handienak hauek izan dituzte: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea*, %7,1eko jaitsierarekin; *Ehungintza, larrugintza eta zapa-tagintza*, %3,8ko jaitsierarekin; eta *Metalurgia eta produktu metalikoak*, %2,2koarekin.

Ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza positiboa izan da *Energiarentzat* (%7,7ko igoera), *Ekipo-ondasunentzat* (%1,3ko igoera) eta *Kontsumo-ondasunentzat* (%0,1ekoa), *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioen gorakadaren ondorioz (%1,6koa), ezen *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak %0,2 jaitsi dira. *Bitarteko ondasunak*, azkenik, %0,8 jaitsi dira.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2019ko Urria

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %		
		2019urr / 2019ira	2019urr / 2018urr	2019urr / 2018abe
INDIZE OROKORRA	106,4	1,1	2,0	4,0
Sektore-banaketa				
Erauzketa industriak	105,8	-1,2	3,0	3,6
Manufaktura-industria	104,8	0,0	-1,1	1,4
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	115,8	7,3	22,5	20,4
Ura	107,0	1,0	0,3	2,4
Industria-sektore handien arabera				
Kontsumo-ondasunak	103,4	0,0	0,1	0,1
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	103,3	-0,1	1,6	1,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	103,4	0,0	-0,2	-0,2
Ekipo-ondasunak	107,2	-0,2	1,3	1,5
Bitarteko ondasunak	102,4	0,2	-0,8	-0,1
Energia	116,1	4,0	7,7	16,8

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62